

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak nazioartean praktikak egiteko Nafarroa Beken lehen deialdia egin du

6 hilabeteko iraupena izango dute gutxienez eta 2012ko abenduaren 31 baino lehenago amaitu beharko dituzte

Viernes, 07 de octubre de 2011

Nafarroako Gobernuak 2011ko Nafarroa-Nazioarteko Praktiketarako Bekak eskatzeko epea ireki du. Beka horiek Nafarroako 2008-2011ko Nazioarteko Planaren barruan emango dira, gaur, [urriak 7, Nafarroako Aldizkari Ofizialean](#) jaso denaren arabera. Beken helburua onuradunek praktikak atzerrian egitea da, Europar Batasunetik kanpoko erakundeetan, esate baterako, enpresetan, ikerketa zentroetan, GKEtan, enbaxadetan, kontsuletxeetan, Espainiako Turismo Institutuaren eta Merkataritza Ganberen bulegoetan.

Eskaerak gaur hasi, urriak 7, eta 2011ko abenduak 2 bitarte aurkeztu ahalko dira Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren erregistroan, Nafarroako Gobernuaren bi erregistro ofizialetako batean edo 30/1992 Legean ezarritako leketan. Eskaera guztiak aurrez berrikusiko dituzte Nafarroako bi unibertsitateetako fundazioek: Nafarroako Unibertsitatearen Enpresa-Unibertsitatea fundazioak eta Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Unibertsitatea-Gizartea fundazioak, elkarlanean ari baitira beka koordinatzen. Deialdi horretan interesa dutenek, praktikak egiten hasi aurretik, atzerrian praktikak egiteko prestakuntza plana bete beharko dute. Bi unibertsitateek eskaintzen dute plan hori.

Beka egonaldirako hileroko poltsa izango da, eta zenbatekoa praktikak egiteko herrialdearen arabera izango da. Horren barruan, joan-etorria egiteko bidaia, bidaiarako eta istripuetarako aseguruia eta bisa ere ordainduko dira. Bekak emateko orduan eskatzailearen espediente akademikoa (% 20), egingo diren praktikek Nafarroarentzat duten interes estrategikoa (% 20) eta praktika horiek hautagaiaren profil profesionalera nola egokitzen direla (% 60) hartuko da kontuan. 6 hilabeteko iraupena izango dute gutxienez eta 2012ko abenduaren 31 baino lehenago amaitu beharko dituzte.

Beka horien inguruan informazio gehiago eskuratzeko idatzi prácticasinternacionales@navarra.es helbide elektronikora edo galdetu Iruñeko Nazioarteko Proiektzioaren Zerbitzuan (Arrieta kalea, 8, 5. solairua eskuina, tel.: 848425769).